

IRITZI

Euskal literatura tradizioan hainbat formatan agertzen da hitz hau: *eretxi*, *eritxi*, *eritzi*, *iritxi* eta *iritzi* formetan gutxienez. Jakina denez, euskara batua eratzen hasi zenean, 1960-70 hamarraldian, *iritzi* zen, alde handiz, gehien erabiltzen zen era. Gero, euskara batuaren finkatze prozesuan, hainbat idazle *eritzi* eraren alde makurtu zen, zaharrena eta bizkaierazko tradizioan erabilia zelakoan.

Literatura tradizioaren azterketa zehatzak gauzak ez direla horrela erakusten du. Idatziz lehen agertzen den forma, Juan de Zumarragaren gutunean (1537) jadanik, *eretxi* da, eta hori berori da bizkaierazko literatur tradizioan erabat nagusi agertzen dena. Bestalde, forma hori da etimologikoki jatorrizkotzat hartu behar den *ereitzi*-tik (ik. Mitxelena, *FHV* 106. orr.) gertuen dagoena. *Eritzi*, Iparraldeko eta Gipuzkoa aldeko testu zaharretan agertzen da, gehien bat *oneritzi*, *gaitzeritzi* eta antzeko elkartuetan, eta inoiz ez izen bezala. Bestalde, forma hau erabat desagertzen da Iparraldean XVII. mendean. Gipuzkoa aldean, haren ordez *iritzi* agertzen da XVIII. mendean (1713an jadanik) eta hau bakarrik erabiltzen da mende horren azkenaldeaz gero.

Azkenengo bi mendeetan, *iritzi* da, alde handiz gehien erabiltzen den forma. Bizkaieraz ere, 1800-1970 epean, oro har, *eretxi*-ren erabilera gutxituz doa eta *iritzi*-rena gehituz, eta dirudienez, 1970a inguruan *iritzi* zen bizkaierazko idazleen artean gehien erabiltzen zen forma, *eretxi*-ren (eta, noski, *eritzi*-ren) gainetik. Bestalde, azken hamarraldiotan hitza sartzen hasia da Iparraldean, *iritzi* forman hain zuzen.

Hortaz, badirudi, euskara baturako gomendatu behar den era *iritzi* dela nahiz izen, nahiz aditz bezala. Inork ez du zalantzan jartzen *e*-z hasten diren formak zaharragoak direla euskaraz, baina *ebili* eta *ekusi* zaharkituzat jotzen direnez gero, ez da arrazoirik ikusten *eritzi*-rekin beste horrenbeste ez egiteko.

Beraz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: *iritzi* erabil bedi aditz nahiz izen gisa.

* * *

Bibliografia:

I. SARASOLA, “Bizkaiera eta euskara batua: *eritzi-iritzi* eta *nire-nere* literatur tradizioan”. *IKER-6 Luis Villasanteri omenaldia*.

(Euskaltzaindiak, Oiartzunen, 1994ko abenduaren 29an onartua)